

Euskarazko hedabideen eguneroko kontsumoa. EAE eta Nafarroa

Definizioa

Egunero gutxienez euskarazko hedabide tradizionalen bat (irratia, egunkaria, telebista eta egunkari digitala) kontsumitzen dutenen ehunekoa neurtzen du adierazle honek, lurraldearen arabera.

Azpiadierazleak, aldiz, lurralde bakoitzean gizonezkoen eta emakumezkoen artean egunero gutxienez euskarazko hedabideren bat (irratia, egunkaria, telebista eta egunkari digitala) kontsumitzen dutenen ehunekoa neurtzen du.

Hamalau urte edo goragoko gizon eta emakumeen kontsumo ohiturak neurtu dira.

Hedadura

EAE eta Nafarroa

Aldagaiak eta kategoriak

Eremu Geografikoa

- EAE
- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Nafarroa

Aldia

- 1997tik 2021era arteko datuak jaso dira, urte bakoitietakoak (1997, 1999, 2001, 2003, etab.)

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Sexua

- Emakumezkoa
- Gizonezkoa

Iturria

CIES (Estudio de Audiencia de Medios de Euskadi y Navarra)

Iturriaren ezaugarriak

1984tik aurrera urtero eginiko inkesta.

Lehen urteetan aurrez aurreko elkarrizketak egiten ziren (PAPI sistema), etxez etxe. Geroago telefonoz egitera pasatu zen (CATI). Gaur egun batzuk aurrez aurre egiten dira, tabletak baliatuz (CAPI).

Iturriaren arduradunak

Datuak CIES S.L. enpresak jasotakoak dira.

Datuen lanketa Euskal Hedabideen Behategiak egina da.

Lehenengo datua eta maiztasuna	1997tik aurrera, bi urtean behin.
Lagina eta akats-tartea	<p>Lagina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1984-1987 : 4.350 - 4.643 bitarte • 1988: 6.498 • 1989-2001: 7.491 – 7.565 bitarte • 2002-2010: 8.001-9.979 bitarte • 2011-2019: 8.600 • 2020: 4.300 <p>Akats tartea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hego Euskal Herri osorako, % 0,98 - % 1,49 tartea, urteen arabera (% 95 konfiantza maila). • Herrialde bakoitzerako, % 1,68 - % 3,26 bitarte, urte eta herrialdearen arabera (% 95 konfiantza maila).
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	Harpidetzakoak dira.
Galdesorta(k)	Ez ditugu eskura.